

Pribatuen Iragarkiak

BILBAO EXHIBITION CENTRE A.B.

LEHIAKETA, prozedura irekiaren bidez, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka Berriaren Harrera eta Batzarretarako Egoitzaren arkitektura eta instalazioen proiektuan jasotako lanak egiteko kontratua esleitzeko dena.

19010

SPRILUR, S.A.

IRAGARKIA, hornitzailegaiei dei publikoa egiteko dena.

19012

Xedapen Orokorrak

ETXEBIZITZA ETA GIZARTE GAJETAKO SAILA

Zk-5883

AGINDUA, 2002ko urriaren 9koa, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuarena, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzkoa.

Abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuak, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzkoak, eskuratzaileak babes ofizialeko etxebizitzak edo bizileku iraunkor eta ohiko moduan erabiltzeko bestelako etxebizitzak eskuratzea etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko ekintza babestuzat hartzen du bere 16. artikuluan. Horrez gain, adierazitako Dekretuaren 17. artikulua eta hurrengoek ekintza babesgarriak egiteko finantza-neurri motak adierazten dituzte, finantzaketa kualifikatua eta zuzeneko laguntza ekonomikoak hain zuzen ere. 16. artikulua berak ezartzen duenez, ekintza hori Sail honetako sailburuaren Agindu bidez arautuko da.

Agindu honen asmoa etxebizitza libre erabiliaren eskaintza orokorrean behin betiko barne hartzea da. Horretarako, etxebizitza libreak eskuratzeko laguntzen programa berri bat ezarriko da eta programa horrek etxebizitza libre erabiliaren merkatuan aurretik jasotako gehieneko prezioak (merkatuko balioak oso behera daudenak) eguneratuko ditu prezio baxuetara edo baxu/ertainetara iritsi arte. Halaber, berariazko kolektiboak (familia ugariak eta 35 urtetik beherako gazteak),

Anuncios Particulares

BILBAO EXHIBITION CENTRE

Concurso para la adjudicación de un contrato de obra por el procedimiento abierto para la ejecución de las obras comprendidas en el Proyecto de Arquitectura e Instalaciones del Edificio de Acogida y Congresos de la Nueva Feria Internacional de Bilbao.

19010

SPRILUR, S.A.

ANUNCIO relativo a la solicitud pública de candidatos a proveedores.

19012

Disposiciones Generales

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA Y ASUNTOS SOCIALES

Nº-5883

ORDEN de 9 de octubre de 2002, del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, sobre medidas financieras para compra de vivienda.

El Decreto 306/2000 de 26 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo establece en su artículo 16 como actuación protegida en materia de vivienda y suelo la adquisición de vivienda de protección oficial y de otras viviendas con destino a residencia habitual y permanente del adquirente. Asimismo los artículos 17 y siguientes del citado Decreto señalan los tipos de medidas financieras para la realización de las actuaciones protegibles y que consisten en financiación cualificada y ayudas económicas directas. El mismo artículo 16 establece que la regulación reglamentaria de esta actuación se desarrollará mediante Orden del Consejero de este Departamento.

La presente Orden pretende incorporar definitivamente la oferta de vivienda libre usada a la oferta general estableciendo un nuevo programa de ayudas para su adquisición que actualiza los precios máximos recogidos anteriormente, muy por debajo del valor del mercado, hasta el segmento de precios bajos o bajos-medios del referido mercado de vivienda libre usada y aportando actuaciones preferenciales hacia colectivos específicos (familias numerosas y jóvenes menores de 35

errenta-mailarik txikieneko biztanleei zuzendutako eta etxebizitza erabiliak eskuratzera bideratutako lehentasunezko ekintzak egingo dira Birgaitze Integratuko Areetan.

Horren indarrez eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organikoa ezartzen duen uztailaren 28ko 40/2002 Dekretuaren 4. artikuluan eta babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko 306/2000 Dekretuaren lehen azken xedapenean xedatutakoari jarraiki,

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Xedea.

Babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzorua inguruko finantza-neurriei buruzko 306/2000 Dekretuaren 16. artikuluko 1.b idatz-zatia garatzea da agindu honen xedea. Honek, ekintza babesgarrien artean, eskuratzailerak babes ofizialeko etxebizitzak eta bizileku iraunkor eta ohiko moduan erabiltzeko etxebizitza libre erabiliak eskuratzera ezartzen du.

2. artikulua.— Ekintza babesgarriak.

Agindu honetan araututako finantza-neurrien xede diren ekintza babestuak ondoko hauek dira:

- 1.— Babes ofizialeko etxebizitzaren erosketak.
- 2.— Etxebizitza libre erabiliaren erosketak.

3. artikulua.— babes ofizialeko etxebizitza erosteko finantza-neurriak

1.— Babes ofizialeko etxebizitzaren erosketak, lehen eskualdaketan, bigarrenaren zein ondorengoetan, finantzaketa kualifikatua izan dezake (hipoteka-maileguarekin).

2.— Finantzaketa kualifikatua lortzeko baldintzak:

a) Babes ofizialeko etxebizitzaren onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak exijitu ahal izango dira, bizilekuari dagokiona izan ezik. Bigarren eskualdaketen eta ondorengo kasuan, sarrerak egiaztatzeko zenbaitu beharrek ezarpen-aldia finantza-neurrien eskaera egiten deneko dataren aurrekoa izango da (Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren aitorpena aurkezteko epea amaiturik).

b) Pertsona fisikoek bizileku iraunkor eta ohiko gisa erabiltzeko etxebizitza bakarra eta ordain truke eskuratzeko dutenean soilik lortu ahal izango dute finantzaketa kualifikatua.

4. artikulua.— Etxebizitza libre erabiliaren erosketak

- 1.— Etxebizitza libre erabiliaren erosketak itzuli beharrik gabeko diru-laguntzak jaso ahal izango ditu.
- 2.— Etxebizitza libre erabiltzat eskualdatzaile gisa sustatzaileak bestelako pertsona bat duena hartzen da

años), hacia la población con menores niveles de renta y hacia la adquisición de viviendas usadas en Areas de Rehabilitación Integrada.

En su virtud, y de conformidad con lo dispuesto en el artículo 4 del Decreto 40/2002 de 28 de julio, por el que se establece la estructura orgánica del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales y en la disposición final primera del citado Decreto 306/2000, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto.

Es objeto de la presente Orden el desarrollo del artículo 16 del Decreto 306/2000, de 26 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, en su apartado 1.b, que establece entre las actuaciones protegibles la de adquisición de viviendas de protección oficial y de viviendas libres usadas con destino a residencia habitual y permanente del adquirente.

Artículo 2.— Actuaciones protegibles.

Las actuaciones protegidas a las que se destinan las medidas financieras reguladas en la presente Orden son:

- 1.— Compra de vivienda de protección oficial.
- 2.— Compra de vivienda libre usada.

Artículo 3.— Medidas financieras para la compra de vivienda de protección oficial.

1.— Tanto en primera como en segundas y posteriores transmisiones la compra de vivienda de protección oficial podrá ser objeto de financiación cualificada, consistente en préstamo hipotecario.

2.— Requisitos para la obtención de la financiación cualificada:

a) Serán exigibles todos los requisitos establecidos para ser beneficiario de vivienda de protección oficial a excepción del requisito relativo a residencia. En caso de segundas y posteriores transmisiones el período impositivo a computar en relación con la acrecitación de ingresos será el que, vencido el plazo de presentación de la declaración del Impuesto de la Renta de la Personas Físicas, sea inmediatamente anterior a la fecha de la solicitud de medidas financieras.

b) Sólo se obtendrá financiación cualificada para la adquisición a título oneroso, por parte de personas físicas, de una sola vivienda cuyo destino sea domicilio habitual y permanente.

Artículo 4.— Compra de vivienda libre usada.

- 1.— La compra de vivienda libre usada podrá ser objeto de subvenciones a fondo perdido.
- 2.— Se considera vivienda libre usada aquella que tenga como transmitente a persona distinta a su promotor

edo, eskualdatzailea sustatzailea bera izanik ere, erakuntza amaitu ondoren eta jabeak, gozamen-eskubide errealek titularrek edo erosteko aukerarik gabeko errentariak bi urteko epean etengabe erabili ondoren eskuratzen dena, betiere eskuratzailerak adierazitako epean etxebizitza erabili duenaz bestelako pertsona bat bada.

3.- Itzuli beharrik gabeko diru-laguntza lortzeko baldintzak:

a) Babes ofizialeko etxebizitzaren onuradun izateko ezarritako baldintza guztiak exijitu ahal izango dira, bizilekuari dagokiona izan ezik. Erreferentzia-data eskaerarena izango da eta ondoko berezitasunak egongo dira:

– Familia ugarien etxebizitza-gabezia egiaztatuta geratuko da etxebizitza bakarra bada eta familia ugariako kide bakoitzeko gutxienez 12 m²-ko azalera erabilgarria ez badu.

– Gutxienerako sarreraren egiaztapena ez da exijituko.

b) Pertsona fisikoek bizileku iraunkor eta ohiko gisa erabiltzeko etxebizitza bakarra eta ordain truke eskuratzen dutenean soilik lortu ahal izango dituzte zuzeneko diru-laguntzak.

c) Tasazio-balioa eta etxebizitzaren eta hauei lotutako eranskinen salmenta-prezioa ondokoa izango da gehienez ere:

– Lurralde Historikoetako hiriburuetan: 2.105 euro/m² erabilgarri, gehieneko prezioa 174.300 eurokoa izanik.

– Eranskinen adierazitako udalerrietan: 1.985 euro/m² erabilgarri, gehieneko prezioa 162.275 eurokoa izanik.

– Gainerako udalerrietan: 1.805 euro/m² erabilgarri, gehieneko prezioa 150.255 eurokoa izanik.

– Nolanahi ere, udalerria edozein izanik ere, Birgaitze Integratuko Areetan kokatutako etxebizitzetarako eta familia ugariak osatzen dituzten eskatzaileentzako gehieneko prezioa 210.355,00 eurokoa izango da.

Tasazio-balio hori dagokion Lurralde Ordezkaritzako Zerbitzu Teknikoek finkatuko dute eta eskatzaileak Finantza Erakundeentzako tasazio-zerbitzuek edo horretarako sortutako Erakunde espezializatuak egindako txostena aurkeztu beharko du, hipoteka-merkatua arautzen duen martxoaren 25eko 2/1981 Legea garatzen duen martxoaren 17ko 685/1982 Errege Dekretuan adierazitakoari jarraiki.

d) Etxebizitzari lotu gabeko eranskinen erosketak ez du itzuli beharrik gabeko diru-laguntzarik jasoko.

e) Ondare urbanizatua eta eraikia birgaitzeko jardura babestuei buruzko 308/2000 Dekretuaren Eranskinen adierazitako bizigarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten etxebizitza libre erabiliak eskuratzeko diru-la-

o que aún siéndolo tenga lugar una vez terminada la edificación y tras su utilización ininterrumpida por plazo de dos años por su propietario, titulares de derechos reales de goce o disfrute o arrendatarios sin opción de compra, siempre que, además el adquirente sea persona distinta de la que utilizó la vivienda durante el referido plazo.

3.- Requisitos para la obtención de subvención a fondo perdido:

a) Serán exigibles todos los requisitos establecidos para ser beneficiario de vivienda de protección oficial, salvo el de residencia, teniendo como fecha de referencia la de la solicitud y con las siguientes especialidades:

– La carencia de vivienda en las familias numerosas quedará acreditada si, tratándose de una sola vivienda, ésta no dispone de una superficie útil mínima de 12 m² por cada miembro de la familia numerosa.

– No será exigible la acreditación de ingresos mínimos.

b) Sólo se obtendrán subvenciones directas para la adquisición a título oneroso, por parte de personas físicas, de una sola vivienda cuyo destino sea domicilio habitual y permanente.

c) Tanto el valor de tasación como el precio de venta de las viviendas y anejos vinculados no podrán exceder de:

– En las capitales de los Territorios Históricos: 2.105 euros/m² útil, siendo el precio máximo 174.300 euros.

– En los municipios señalados en el Anexo: 1.985 euros/m² útil, siendo el precio máximo 162.275 euros.

– En el resto de municipios: 1.805 euros/m² útil, siendo el precio máximo 150.255 euros.

– En todo caso, independientemente del municipio de que se trate, para viviendas sitas en Áreas de Rehabilitación Integrada o solicitantes que constituyan familias numerosas el precio máximo será 210.355 euros.

Dicho valor de tasación se determinará por los Servicios Técnicos de la Delegación Territorial correspondiente, debiendo aportarse por el solicitante Informe emitido por los Servicios de tasación de las Entidades Financieras o por Entidades especializadas creadas para este objeto, de conformidad con lo señalado en el Real Decreto 685/1982, de 17 de marzo, de desarrollo de la Ley 2/1981, de 25 de marzo, de regulación del mercado hipotecario.

d) No serán objeto de subvención a fondo perdido la compra de anejos no vinculados a vivienda.

e) La concesión de subvenciones para la adquisición de viviendas libres usadas que no reúnan las condiciones de habitabilidad del Anexo del Decreto 308/2000, sobre actuaciones protegidas de rehabilitación del pa-

guntzen emakida eskuratzailerak urtebeteko gehieneko epean (salerosketa-kontratuari oniritzia ematen zaionetik aurrera kontatzen hasita) birgaitze-proiektua aurkeztearen baldintzapean geratuko da. Proiektu horren gauzatzea ondare urbanizatu eta eraikiaren birgaitze-arloan ezarritako finantza-neurrien bitartez babestu ahal izango da.

Birgaitze-proiektu hori adierazitako epean ez aurkezteak edota obren amaierako ziurtagiria kontratuari oniritzia eman eta bi urteko epean ez aurkezteak jasotako onura ekonomiko guztiak hauei dagozkien interesekin (indarrean dagoen legezko tasaren arabera) itzuli beharra ekarriko du.

f) Etxebizitza libre erabilien edo hauei lotutako eranskinen azalera babes ofizialeko etxebizitzetarako oro har ezarritakoa izango da, familia ugariak eskuratzen dituzten edo Birgaitze Integratuko Areetan kokatuta dauden etxebizitzaren kasuan izan ezik. Kasu hauetan etxebizitzaren azalera erabilgarria 120 m²-koa izan daiteke.

4.- Hirigintza-mailan antolamenduz kanpoko gisa kalifikatuta dauden etxebizitzak lortzeko eskaerak ez dute diru-laguntzarik jasoko, lurzoruari eta hiri-antolamenduari buruz indarrean dagoen araudian xedatutakoari jarraiki.

5.- Jasotako finantza-neurrien bidez eskuratzen diren etxebizitza libre erabiliak ezin izango dira eskualdatu 10 urteko epean (salerosketa-eskritura publikoa formalizatzen den egunetik aurrera kontatzen hasita), Administrazioari jasotako laguntza eta honi dagozkion legezko interesak itzultzen ez bazaizkio. Ondorio hauei arazo, ezkontza-banantzeen edo dibortzioen ondorioz etxebizitza osoa titularkide bati esleitzea ez da eskualdaketatzat hartuko.

5. artikulua.– Babes ofizialeko etxebizitza erosteko maileguak

1.- Maileguaren ezaugarriak

a) Gehieneko kopurua etxebizitzaren salmenta-prezioaren %80koa izango da.

Etxebizitza-beharrari buruzko Aginduan ezarritakoari jarraiki, eskatzailea beste etxebizitza baten titularra denean maileguaren gehieneko kopurua ondokoa izango da:

1.- Finantza-neurriak eskatuta eskuratu nahi den etxebizitzaren eta, hala badagokio, eranskinen prezioaren eta hondamen-egoeran dagoen etxebizitzaren tasazio-balioaren arteko diferentziaren %80koa.

2.- Finantza-neurriak eskatuta eskuratu nahi den etxebizitzaren eta, hala badagokio, eranskinen prezioaren eta desjabetze-espedientearen erabakitako balio justuaren kopuruaren arteko diferentziaren %80koa.

3.- Finantza-neurriak eskatuta eskuratu nahi den etxebizitzaren eta, hala badagokio, eranskinen prezioaren eta gutxieneko bizigarritasun-baldintzak betetzen

trimonio urbanizatu eta edificado quedará condicionada a la presentación por el adquirente de proyecto de rehabilitación en plazo no superior a un año desde el visado del contrato de compraventa. La ejecución del citado proyecto podrá ser protegida a través de las medidas financieras establecidas en materia de rehabilitación del patrimonio urbanizado y edificado.

La no presentación del citado proyecto de rehabilitación en el plazo señalado o del certificado final de obras en el plazo de dos años desde el visado del contrato originará la devolución de todos los beneficios económicos percibidos con los intereses correspondientes, conforme al tipo de interés legal vigente.

f) La superficie útil de la viviendas libres usadas o sus anejos vinculados será la establecida con carácter general para las viviendas de protección oficial, excepto para las viviendas a adquirir por familias numerosas o las que se encuentren situadas en Áreas de Rehabilitación Integrada en cuyo caso la superficie útil de la vivienda podrá ascender a 120 m².

4.- No se reconocerán subvenciones a las solicitudes referidas a viviendas calificadas urbanísticamente como fuera de ordenación, de conformidad con lo dispuesto en la normativa vigente sobre suelo y ordenación urbana.

5.- Las viviendas libres usadas para cuya adquisición se haya percibido medidas financieras no podrán ser transmitidas en el plazo de 10 años a contar desde la fecha de formalización de la escritura pública de compraventa sin devolver a la Administración la ayuda percibida junto con el interés legal correspondiente. No se considerará transmisión, a estos efectos, la adjudicación de la totalidad de la vivienda a uno de sus cotitulares como consecuencia de separaciones matrimoniales o divorcios.

Artículo 5.– Préstamos para compra de vivienda de protección oficial.

1.- Características del préstamo.

a) La cuantía máxima será del 80% del precio de venta de la vivienda.

En los supuestos en los que el solicitante sea titular de otra vivienda, de conformidad con lo establecido en la Orden de necesidad de vivienda, la cuantía máxima del préstamo cualificado será:

1.- El 80% de la diferencia resultante entre el precio de la vivienda y anejos, en su caso, para cuya adquisición se solicitan medidas financieras y el valor de tasación de la vivienda declarada en estado ruinoso.

2.- El 80% de la diferencia resultante entre el precio de la vivienda y anejos, en su caso, para cuya adquisición se solicitan medidas financieras y la cuantía del justiprecio acordado en el expediente expropiatorio.

3.- El 80% de la diferencia resultante entre el precio de la vivienda y anejos, en su caso, para cuya adquisición se solicitan medidas financieras y el valor de ta-

ez dituen etxebizitzaren tasazio-balioaren arteko diferentziaren %80koa.

4.– Eskuratzen den etxebizitza-zatiaren eta, hala badagokio, eranskinen salmenta-prezioaren %80koa, eskatzailea titularakidea izanik etxebizitzaren jabari osoa eskuratzeko finantza-neurriak eskatzen direnean.

5.– Finantza-neurriak eskatuta eskuratu nahi den etxebizitzaren eta, hala badagokio, eranskinen prezioaren eta finantza-neurrien eskatzaileak jabetzan duen etxebizitzaren salmenta-prezioaren arteko diferentziaren %80koa, eskatzaileen artean bizikidetz-unitateko kidea den eta mugigarritasun mugatu iraunkorreko minusbaliotasuna duela egiaztatzen duen pertsona bat dagoenean.

b) Amortizazio-epea 20 urtekoa izango da, 2 urteko hautazko gabealdia barne hartuta.

c) Mailegua hipoteka bidez bermatuko da eta, hala badagokio, kreditu erakundeek mailegariari exijitzen zaizkion bermeen bidez.

d) Garajeen eta trastelekuen azalera erabilgarria mailegu kualifikatuaren gehieneko kopurua finkatzeko kontuan hartuko da.

Erregistroaren arabera babes ofizialeko etxebizitzari edo etxebizitza libre erabiliari lotutako eranskinen kasuan, maileguaren m² erabilgarri bakoitzeko gehieneko kopurua eranskinaren salmenta-prezioaren %60koa izango da.

Babes ofizialeko etxebizitzari lotu gabeko eranskinak beren salmenta-prezioaren %30eko mailegua izango dute.

Garajeen eta/edo trastelekuen eskuratzailerak ez dute finantzaketa kualifikaturik jasoko garaje eta trasteleku horien eraikin, eraikuntza-unitate edo sustapen berean kokatutako babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko ez dutenean.

e) Martxoaren 25eko 2/1981 Legean aurreikusitako ondorioetarako, etxebizitzak eta eranskinak eskuratzeko maileguen kopurua etxebizitzaren eta eranskinen tasazio-balioaren %80koa izango da gehienez ere.

2.– Subrogazioa edo zuzeneko mailegua

1.– Eskuratzailerentzako mailegua zuzenean edo mailegu kualifikatuaren hipoteka-kargaren ordainketan sustatzailea subrogatuz eman ahal izango da.

2.– Eskuratzailerari subrogazio bidez egindako maileguak, eraikuntza amaitu ondoren eskurapena salerosketa edo esleipen eskritura publikoaren bitartez formalizatzen denean, gabealdia eta aldi horri dagozkion interesen ordainketa eteten du.

Eskuratzailerak, eskrituraren bidez, hipotekaren ondoriozko erantzukizunekin eskuratuko du etxebizitzaren jabetza eta eskrituraren datatik aurrera hasi behar du hipoteka-kreditua amortizatzen. Horretarako,

sación de la vivienda que no reúne condiciones mínimas de habitabilidad.

4.– El 80% del precio de venta de la parte de la vivienda y anejos, en su caso, que se adquieran, cuando se soliciten medidas financieras para la adquisición del dominio pleno de la vivienda de la que es cotitular el solicitante.

5.– El 80% de la diferencia resultante entre el precio de la vivienda y anejos, en su caso, para cuya adquisición se solicitan medidas financieras y la cuantía de precio de venta de la vivienda de la que ya es propietario el solicitante de medidas financieras, en el caso de que exista entre los solicitantes algún miembro de la unidad convivencial que acredite la condición de minusválido con movilidad reducida permanente.

b) El plazo de amortización será de 20 años, incluidos 2 años de carencia opcional.

c) El préstamo será garantizado con hipoteca y, en su caso, con las garantías que pudieran exigir al prestatario los Establecimientos de Crédito.

d) La superficie útil de los garajes y trasteros será tenida en cuenta a los efectos de determinación de la cuantía máxima del préstamo cualificado.

En el caso de anejos vinculados, registralmente, a vivienda de protección oficial y vivienda libre usada, la cuantía máxima de préstamo por m² útil será el 60% del precio de venta del anejo.

En el caso de anejos no vinculados a vivienda de protección oficial tendrán un préstamo en cuantía del 30% del precio de venta de los anejos.

No recibirán financiación cualificada los adquirentes de garajes y/o trasteros que no adquieran vivienda de protección oficial ubicada en el mismo edificio, unidad edificatoria o promoción que aquéllos.

e) La cuantía de los préstamos para adquisición de viviendas y anejos no podrá exceder en ningún caso del 80% del valor real de tasación de la vivienda y anejos, a los efectos previstos en la Ley 2/1981, de 25 de marzo.

2.– Subrogación o préstamo directo.

1.– El préstamo al adquirente podrá concederse directamente o por subrogación en el pago de la carga hipotecaria del préstamo cualificado al promotor.

2.– El préstamo al adquirente mediante subrogación, cuando finalizada la construcción se formalice la adquisición a través de la correspondiente escritura pública de compraventa o adjudicación, interrumpe el período de carencia y el pago de intereses correspondientes a este período.

Mediante la escritura, el adquirente accederá a la propiedad de la vivienda con las responsabilidades derivadas de la hipoteca, debiendo comenzar la amortización del crédito hipotecario desde la fecha de aquélla. A tal

eskritura Kreditu Erakundeari jakinaraziko zaio sustatzaileak ordaindu beharreko lehen kopiaren bidez.

Hipoteka Legearen 118. artikuluan xedatutakoari jarraiki eskuratzaillea hipoteka-erantzukizun horretan ez ezik horrekin bermatutako betebeharrak pertsonalean ere subrogatuko dela ituntzen bada, betebeharrak horretan ere subrogatuko da Kreditu Erakundeak espresuki edo zuzenki adostasuna adierazten badu.

3.– Mailegu kualifikatuaren zuzeneko emakidak berariazko ondoko baldintzak betetzea eskatuko du:

a) Etxebizitzaren sustatzaile/saltzailearen eta eskuratzaillearen artean salerosketa-kontratua edo esleipen-dokumentua ikus-onesia behar bezala jaso ondoren eta eskritura publikoan formalizatu izana.

b) Sustatzaile/saltzaileak etxebizitza bererako kreditu kualifikatua jasotzen duenean kreditu hori eskuratzaillearentzako mailegua eman aurretik baliogabetzea.

c) Salerosketa edo esleipen kontratuaren ikus-onesiaren eta babes ofizialeko etxebizitzaren behin betiko kalifikazioa lortzen direnetik Kreditu Erakundearen mailegu kualifikatuaren eskaera bideratu arte 6 hilabete ez igarotzea. Mailegu hau urtebeteko epean formalizatu beharko da gehienez ere.

6. artikulua.– Etxebizitza libre erabilia erosteko itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen kopuruak

1.– Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzaren kopurua Agindu honen 4. artikuluan adierazitako tasazio-balioaren gainean kalkulatu da, salmenta-prezioa baxuagoa denean izan ezik, kasu horretan prezio horren arabera kalkulatu da. Portzentajeak ondokoak izango dira:

Oro har: %9.

– Birgaitze Integratuko Areetan kokatutako etxebizitzaren edo 35 urtetik beherakoez osatutako bizikidetzak unitateen kasuan: %10.

– Familia ugarien kasuan: %10 gehi 600,00 euro seme-alaba bakoitzeko (hirugarrenetik aurrera, hau barne).

Nolanahi ere, kopuru horrek ezin izango ditu gaitz sarrera ponderatuen arabera gehienezko ondoko mugak:

efecto se notificará la escritura al Establecimiento de Crédito mediante primera copia de la misma que satisfará el promotor.

Si, de conformidad con lo dispuesto en el artículo 118 de la Ley Hipotecaria, se hubiese pactado que el adquirente se subrogará no sólo en dicha responsabilidad hipotecaria sino también en la obligación personal con ella garantizada, quedará subrogado en ella si presta su conformidad el Establecimiento de Crédito expresa o tácitamente.

3.– La concesión directa de préstamos cualificados requerirá el cumplimiento de los siguientes requisitos específicos:

a) Que se haya formalizado el contrato de compraventa o documento de adjudicación debidamente visado entre adquirente y promotor/vendedor de la vivienda en escritura pública.

b) Que, cuando el promotor/vendedor hubiera recibido crédito cualificado para la misma vivienda, lo cancele previamente a la concesión del préstamo al adquirente.

c) Que no hayan transcurrido 6 meses desde la obtención conjunta del visado del contrato de compraventa o adjudicación y de la calificación definitiva de viviendas de protección oficial, hasta la tramitación de la solicitud del préstamo cualificado en el Establecimiento de Crédito. Este préstamo deberá formalizarse en el plazo máximo conjunto de un año.

Artículo 6.– Cuantías de las subvenciones a fondo perdido para la compra de vivienda libre usada.

1.– La cuantía de la subvención a fondo perdido se calculará sobre el valor de tasación a que se refiere el artículo 4 de esta Orden, salvo que el precio de venta sea menor, en cuyo caso se calculará según éste, siendo los porcentajes los siguientes:

Con carácter general: 9%

– En el caso de viviendas situadas en Áreas de Rehabilitación Integrada o de unidades convivenciales cuyos integrantes tengan una edad inferior a 35 años: 10%

– En el caso de familias numerosas: 10% más 600 euros por cada hijo a partir del tercero, incluido éste.

En todo caso dicha cuantía no podrá exceder de los siguientes topes máximos en función de los ingresos ponderados:

SARRERA PONDERATUAK	MUGA OROKORRA	BIA-ETAN KOKATUTAKO ETXEBIZITZEN EDO 35 URTETIK BEHERAKOEN MUGA	FAMILIA UGARIEN MUGA
---------------------	---------------	---	----------------------

≤ 33.055,67 euro	4.210,00 euro	5.410,00 euro	6.010,00 euro
≤ 27.045,54 euro	6.010,00 euro	7.215,00 euro	7.815,00 euro
≤ 21.035,42 euro	8.415,00 euro	10.220,00 euro	11.420,00 euro
≤ 15.025,30 euro	13.225,00 euro	15.025,00 euro	16.830,00 euro
≤ 9.015,18 euro	15.625,00 euro	17.430,00 euro	21.000,00 euro

INGRESOS PONDERADOS	TOPE GENERAL	TOPE VIVIENDAS SITAS EN ARI O MENORES DE 35 AÑOS	TOPE FAMILIAS NUMEROSAS
---------------------	--------------	---	-------------------------

≤ 33.055,67 euros	4.210,00 euros	5.410,00 euros	6.010,00 euros
≤ 27.045,54 euros	6.010,00 euros	7.215,00 euros	7.815,00 euros
≤ 21.035,42 euros	8.415,00 euros	10.220,00 euros	11.420,00 euros
≤ 15.025,30 euros	13.225,00 euros	15.025,00 euros	16.830,00 euros
≤ 9.015,18 euros	15.625,00 euros	17.430,00 euros	21.000,00 euros

2.- Eskatzaileek aldi berean aurreko paragrafoan adierazitako hainbat portzentajeren onuradunak izateko beharrezkoak diren baldintzak betetzen badituzte, onuragarriena besterik ez zaie aplikatuko.

7. artikulua.- espedientea bideratzea.

1.- Finantza-neurriak emateko prozedura Ordezkaritzari eredu ofizialean egindako eskaeraren bidez hasiko da eta eskabideari ereduan agertzen den dokumentazioa erantsiko zaio. Eskabidea salerosketa-eskritura publikoa formalizatu aurretik aurkeztu beharko da, Agindu honen lehen xedapen iragankorrean xedatutakoaren kaltetan izan gabe.

Nolanahi ere, organo eskudunaren iritziz egindako eskaera ebatzeko beharrezkoak den beste edozein dokumentu eskatu ahal izango da.

2.- Eskabidearekin batera salerosketa-kontratuak edo esleipen-dokumentuak aurkeztu beharko dira eta, bertan, etxebizitzaren eskuratzailerak eta bere bizikidetzak-unitateko guztiek bizileku eta ohiko gisa erabiltzeko eta ematen zaienetik hiru hilabeteko epean bertan bizitzen hasteko konpromisoa hartzen dutela jasoaraziko da espresuki eta nahitaezko klausula gisa. Gainera, bertan bizi direla egiaztatu beharko dute dagokion udal-ziurtagiriaren bidez. Egiaztagiri hau adierazitako hiru hilabeteko epean aurkeztu beharko da dagokion Lurralde Ordezkaritzaren aurrean.

Betebehar hau ez betetzeak jasotako laguntza galtzea eta, hala badagokio, kopurua itzuli beharra ekarriko du dagokion administrazio-espedientearen ondoren.

3.- Interesatuak etxebizitza berbera eskuratzeko aurkeztutako finantza-neurrien bigarren eskaerak edo hurrengoak ez dira onartuko, Agindu honen lehen Xeda-

2.- En el caso de que los solicitantes reúnan las condiciones necesarias para ser beneficiarios simultáneamente de varias de los porcentajes señalados en el párrafo anterior, se les aplicará únicamente aquel que resulte más beneficioso.

Artículo 7.- Tramitación del expediente.

1.- El procedimiento de concesión de medidas financieras se iniciará mediante solicitud formulada en modelo oficial a la Delegación a la que se adjuntará la documentación que figure en el mismo. Dicha solicitud deberá presentarse con antelación a la formalización de la escritura pública de compraventa, sin perjuicio de lo dispuesto en la disposición transitoria primera de la presente Orden.

En todo caso podrá solicitarse cualquier otro documento que a juicio del órgano competente sea preciso para la resolución de la solicitud formulada.

2.- Conjuntamente con la solicitud deberán presentarse los correspondientes contratos de compraventa o documentos de adjudicación en los cuales se hará constar expresamente y con carácter de cláusula obligatoria que el adquirente de la vivienda y los componentes de su unidad convivencial se comprometen a dedicarla a su domicilio habitual y permanente, y a ocuparla en el plazo de tres meses desde su entrega, acreditando su residencia en ella mediante la certificación municipal correspondiente que deberá presentarse, en el citado plazo de tres meses, ante la Delegación Territorial correspondiente.

El incumplimiento de esta obligación dará lugar, previo el correspondiente expediente administrativo, a la pérdida de la ayuda concedida y, en su caso, al reintegro de la ayuda percibida.

3.- No se estimarán segundas o posteriores solicitudes de medidas financieras para la adquisición de vivienda presentadas por los mismos interesados y referentes

pen Iragankorrean kontuan hartutako aurreikuspenen babesean egiten direnak izan ezik.

4.– Finantza-neurriak, nolanahi ere, dagokion Lurralde Ordezkararen administrazio-ebazpen bidez emango dira.

5.– Administratiboki onartutako finantza-neurriak aldeztetik eskritura publikoa formalizatu ondoren eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioarekin berariazko finantza-hitzarmena izenpetu duten Finantza Erakunderen baten bitartez jasoko dira. Horretarako, Lankidetzaren Hitzarmena izenpetu duten Kreditu Erakundeetako edozeinetara joan beharra dago 3 hilabeteko epean, hurrengo atalean ezarritako egunetik aurrera kontatzen hasita.

6.– Finantza-neurrien onuraduna den eskuratzailerak dagokion eskritura publikoa aurkeztu beharko du Lurralde Ordezkaritzan, 3 hilabeteko epean ondokoetatik aurrera kontatzen hasita:

- laguntza ematen edo onartzen duen ebazpena jakinarazten denetik aurrera, etxebizitza erabiliak eta babes ofizialeko etxebizitzaren bigarren eskualdaketak edo ondorengoak direnean.

- behin betiko kalifikazioa eman dela jakinarazten denetik aurrera, babes ofizialeko etxebizitzaren lehen eskualdaketetan.

Eskritura publiko horretan eskabidean edo salerosketa-kontratu pribatuan adierazitako datuekin kontrastatzen dauden funtsezko datuak jasotzeak onartutako laguntzak baliogabetzea ekar dezake.

XEDAPEN GEHIGARRIA

1.– Urtero, ekitaldi bakoitzaren lehen hiru hilabeteen barruan eta Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez, etxebizitza libre erabilia eskuratzera zuzendutako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa argitaratuko da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

2.– Aurrekontu-ekitaldi bakoitzaren barruan eman beharreko laguntzen guztizko bolumenak ezin izango du gainditu dagokion esleipena edo hau eguneratzearen ondoriozkoa, indarrean dagoen legeria aplikagarriari jarraiki aurrekontu-aldaketak onartzen direnean. Hortaz, ez da laguntza berririk emango zenbateko hori agortu ondoren. Kreditua agortu izana Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkari Ofizialean argitaratuko da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuaren Agindu bidez.

3.– Hala ere, babes ofizialeko etxebizitzaren erregimenari eta etxebizitzaren eta lurzoruen inguruko finantza-neurriei buruzko abenduaren 26ko 306/2000 Dekretuan bildutako erregulazioari jarraiki baieztatu jaso-
tzeko baldintza guztiak betetzen dituzten eta baliabide ekonomikorik ez izategatik soilik ezesten diren di-

a la misma vivienda, salvo las que se formulen al amparo de las previsiones contempladas en la Disposición Transitoria primera de la presente Orden.

4.– La concesión de las medidas financieras se efectuará en todo caso por resolución administrativa del Delegado Territorial correspondiente.

5.– La percepción de las medidas financieras reconocidas administrativamente requerirá la formalización previa de escritura pública y se realizará a través de alguna de las Entidades Financieras que hayan suscrito convenio financiero específico con la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco, debiendo presentarse ante cualquiera de los Establecimientos de Crédito firmantes del Convenio de Colaboración en el plazo de 3 meses a contar según lo establecido en el apartado siguiente.

6.– El adquirente beneficiario de medidas financieras habrá de presentar la correspondiente escritura pública en la Delegación Territorial en plazo de 3 meses a contar:

- desde la notificación de la resolución de concesión o reconocimiento de la ayuda, en el supuesto de viviendas usadas y segundas o posteriores transmisiones de viviendas de protección oficial.

- desde la notificación del otorgamiento de calificación definitiva, en el caso de primera transmisión de viviendas de protección oficial.

La consignación en dicha escritura pública de datos esenciales contradictorios con los aportados en la solicitud o el contrato privado de compraventa podrá dar lugar a la revocación de las ayudas reconocidas.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

1.– Anualmente, dentro de los tres primeros meses de cada ejercicio, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales, se dará publicidad, en el Boletín Oficial del País Vasco, del importe de los créditos consignados para la financiación de las ayudas destinadas a la adquisición de vivienda libre usada.

2.– El volumen total de ayudas a conceder dentro de cada ejercicio presupuestario no excederá la correspondiente consignación o la que resulte de su actualización, en el caso de que se aprueben modificaciones presupuestarias de conformidad con la legislación vigente aplicable. No procederá, por tanto, la concesión de nuevas ayudas una vez agotado dicho importe, haciéndose público el agotamiento del crédito en el Boletín Oficial del País Vasco, mediante Orden del Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales.

3.– No obstante, las solicitudes de subvención que reúnan todos los requisitos para ser atendidas conforme a la regulación contenida en el Decreto 306/2000, de 26 de diciembre, sobre régimen de viviendas de protección oficial y medidas financieras en materia de vivienda y suelo, y en la presente Orden, y se denieguen

ru-laguntza lortzeko eskaerak hurrengo ekitaldian ebatzi ahal izango dira, betiere eskatzaileak Lurralde Ordezkaritzara idazki bat bidaltzen badu eta bertan eskaera baldintza berberetan mantentzeko asmoa adierazten badu.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Lehen.

1.— Ezarritako baldintzak betez 2002. urtearen barruan eta Agindu hau indarrean sartu aurretik eskritura publikoan gauzatu diren etxebizitza-eskurapenek jaso ahal izango dituzte Agindu honetan etxebizitza libre erabilia erosteko bildutako diru-laguntzak.

2.— Etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko 2000ko abenduaren 26ko Aginduak etxebizitza libre erabilia erosteko ezarritako laguntzak 2002. urtean jaso dituzten eskatzaileek Agindu honetan aurreikusitako laguntzak ere eskatu ahal izango dituzte baina, gehenez ere, bi araudiak aplikatuta geratzen den diferentziaren baliokidea izango den diru-laguntza gehigarria jaso ahal izango dute.

3.— Agindu hau indarrean sartu aurretik aurkeztu diren eta oraindik Ebazpenik ez duten eskaerek Agindu honetan xedatutakoari lotzeko aukera izango dute.

4.— Xedapen iragankor honetan xedatutakoari lotzen zaizkion eskaerak 2002ko abenduaren 31ra bitartean egin ahal izango dira.

Bigarrena.

Etxebizitza libre erabilia eskuratzera zuzendutako laguntzak finantzatzeko esleitutako kredituen zenbatekoa bi milioi bederatziehun mila (2.900.000,00) eurora iristen da 2002ko ekitaldian.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Agindu hau indarrean sartzen denean indargabetuta geratuko da bertan ezarritakoaren aurka dagoen maila bereko edo txikiagoko beste edozein xedapen eta, espresuki, etxebizitza erosteko finantza-neurriei buruzko 2000ko abenduaren 26ko Agindua (honen babesean sortutako egoerak salbuetsita).

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2002ko urriaren 9a.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburua,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

únicamente por falta de recursos económicos, podrán ser resueltas en el ejercicio económico siguiente, siempre y cuando el solicitante dirija un escrito a la Delegación Territorial correspondiente manifestando su intención de mantener su solicitud en las mismas condiciones.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

Primera.

1.— Podrán acceder a las subvenciones contempladas en la presente Orden para la compra de vivienda libre usada aquellas adquisiciones de vivienda que, cumpliendo los requisitos que se establecen, hayan sido elevadas a escritura pública a lo largo de 2002 con antelación a la entrada en vigor de la presente Orden.

2.— Aquellos solicitantes a quienes se haya concedido en el año 2002 las ayudas a la compra de vivienda libre usada que establecía la Orden de 26 de diciembre de 2000, sobre medidas financieras para compra de vivienda podrán solicitar las ayudas que la presente Orden prevé, para acceder, como máximo, a una subvención adicional equivalente a la diferencia resultante entre la aplicación de ambas regulaciones.

3.— Las solicitudes presentadas con anterioridad a la entrada en vigor de esta Orden y sobre las que aún no haya recaído Resolución podrán optar por acogerse a lo dispuesto en la presente Orden.

4.— Las solicitudes que se acojan a lo dispuesto en la presente disposición transitoria podrán formularse hasta el 31 de diciembre de 2002.

Segunda.

Durante el ejercicio 2002 el importe de los créditos consignados para la financiación de las ayudas destinadas a la adquisición de vivienda libre usada asciende a la cantidad de dos millones novecientos mil (2.900.000,00.-) euros

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

A la entrada en vigor de la presente Orden, queda derogada cualquier otra disposición de igual o inferior rango que se oponga a lo establecido en ella y expresamente la Orden de 26 de diciembre de 2000, sobre medidas financieras para compra de vivienda, a salvo de las situaciones creadas a su amparo.

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco

En Vitoria-Gasteiz, a 9 de octubre de 2002.

El Consejero de Vivienda y Asuntos Sociales,
JAVIER MADRAZO LAVÍN.

ERANSKINA		
162.275,00 EUROKO GEHIENENKO PREZIOA DUTEN UDALERRIAK		
ARABA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Amurrio	Abadiño	Arrasate/Mon-
Laudio	Abanto/Zierbena	dragón
	Alonsotegi	Astigarraga
	Arrankudiaga	Andoain
	Arrigorriaga	Azkoitia
	Balmaseda	Azpeitia
	Barakaldo	Beasain
	Barrika	Bergara
	Basauri	Eibar
	Berango	Errenteria
	Bermeo	Hernani
	Derio	Hondarribia
	Durango	Ibarra
	Elorrio	Irun
	Erandio	Lasarte-Oria
	Ermua	Lezo
	Etxebarri, Do-	Oiartzun
	neztebeko Eliza-	Ordizia
	tea - Etxebarri,	Pasaia
	Anteiglesia de	Tolosa
	San Esteban	Urnieta
	Galdakao	Urretxu
	Gernika-Lumo	Usurbil
	Getxo	Zarautz
	Gorliz	Zumaia
	Igorre	Zumarraga
	Larrabetzu	
	Leioa	
	Lekeitio	
	Lemoiz	
	Lezama	
	Loiu	
	Markina-Xemein	
	Mungia	
	Muskiz	
	Ondarroa	
	Plentzia	
	Portugalete	
	Santurtzi	
	Sestao	
	Sondika	
	Sopela	
	Ugao-Miraballes	
	Urduliz	
	Urduña	
	Urtuella	
	Trapagaran	
	Zalla	
	Zamudio	
	Zaratamo	
	Zeberio	
	Zierbena	
	Zornotza	

ANEXO		
MUNICIPIOS CUYO PRECIO MÁXIMO ASCIENDE A 162.275 EUROS		
ALAVA	BIZKAIA	GIPUZKOA
Amurrio	Abadiño	Arrasate/Mon-
Llodio	Abanto y Ciérva-	dragón
	na- Abanto	Astigarraga
	Zierbena	Andoain
	Alonsotegi	Azkoitia
	Amorebieta	Azpeitia
	Arrankudiaga	Beasain
	Arrigorriaga	Bergara
	Balmaseda	Eibar
	Barakaldo	Errenteria
	Barrika	Hernani
	Basauri	Hondarribia
	Berango	Ibarra
	Bermeo	Irun
	Derio	Lasarte-Oria
	Durango	Lezo
	Elorrio	Oiartzun
	Erandio	Ordizia
	Ermua	Pasaia
	Etxebarri, Antei-	Tolosa
	glesia de San Es-	Urnieta
	teban- Etxebarri	Urretxu
	Doneztebeko	Usurbil
	Elizatea	Zarautz
	Galdakao	Zumaia
	Gernika-Lumo	Zumarraga
	Getxo	
	Gorliz	
	Igorre	
	Larrabetzu	
	Leioa	
	Lekeitio	
	Lemoiz	
	Lezama	
	Loiu	
	Markina-Xemein	
	Mungia	
	Muskiz	
	Ondarroa	
	Orduña	
	Ortuella	
	Plentzia	
	Portugalete	
	Santurtzi	
	Sestao	
	Sondika	
	Sopelana	
	Ugao-Miraballes	
	Urdúliz	
	Valle de Trapaga-	
	Trapagaran	
	Zalla	
	Zamudio	
	Zaratamo	
	Zeberio	
	Zierbena	